

FUNTSEZKO JARDUERAK

Garrantzitsua da enpresa barruan egin daitezkeen zereginak identifikatzea, kanpoko enpresen esku ez uzteko eta horrela, arriskuak murrizteko.

Beraz, **ezagutzarekin, negozioaren know how** delakoarekin, lotutako guztia **ezin da besteen esku utzi**.

Enpresak duen jarduera funtsezkoena produktuaren diseinu eta ekoizpena izango da, baina internet bidezko nahiz aurrez aurreko salmentak ere gure gain hartzeko asmoa dugu. Beraz, beste enpresen esku utziko ditugun jarduerak beharrezko zaizkigun lehengaien ekoizpena eta salgaien banaketa izango dira. Hau da, guk lehengaiak erosi, hauek eraldatu eta produktu bukatu bat edukiko dugu. Hau merkatuan saltzeaz ere gu arduratuko gera. Bezeroek erositakoan ordea, ez gera gu izango banatuko duguna, banaketetara dedikatzen den beste enpresa bat baizik. Hau izango da gure epe luzeko helburua. Hala ere, azken jarduera hau ere guregain hartu behar izango dugu hasiera batean, goian aipatu bezala.